BALOREZKO PROPOSAMENAK

LAOSek Euskal Herri osoko ikasleei eta familiei eskolako materiala modu erraz, merke eta erosoan erosteko eta saltzeko aukera eskaintzen die. Gaur egun, ikasle askok urtero liburuak eta bestelako eskola-material berriak erosi behar dituzte, nahiz eta beste ikasle batzuek material bera erabiltzeari utzi dioten eta egoera onean mantentzen den. Horrek gastu ekonomiko handia sortzen die familiei.

Gure plataformaren bidez, arazo hori konpondu nahi dugu, erabilitako eskola-materialari bigarren bizitza bat emanez. Horrela, erosleek dirua aurreztu ahal izango dute, saltzaileek erabiltzen ez duten materialarekin dirua lortu ahal izango dute eta, aldi berean, berrerabilpena eta ingurumenaren zaintza sustatuko ditugu. LAOSek Euskal Herri osoko ikasleak eta familiak konektatuko ditu, eskola-materialaren salerosketa erraztuz.

